

SANTAMASETAKO XVII. XAKE TXAPELKETA.

2005.go abenduaren 18an jolastu zen, Arrasaten (Gipuzkoa). Hamalau talde izan ziren parte hartzaileak. Liga moduan jolastu zen.

Gros Xake Taldeak irabazi egin zuen. Neurketa guztiak irabazi zituen, bat izan ezik (Zaldi Baltzaren aurka modu estuan galduta).

Txapeldunorde Errenteriako Fomento-Beraun geratu zen, Grosen aurka soilik galduta.

Zaldi Baltza Xake Taldeak hirugarren postua lortu zuen, galdu gabe bukatu bazuen ere.

Arrasate talde antolatzailearentzat izan zen laugarren postua.

2005-12-18.

Iturria: "Gara" eta Mikel Zubia.